

ARESO ▶

Euskararen Eguna ospatuko dute

Etzi, dantzariak, kirolariak, trikitilariak, bazkaria... ▶ 7



Eskualdeko 17 produktu berri Durangoko Azokan

DENETATIK ▶ Hemengo liburuak, diskoak eta mahai jokoak izango dira salgai azokaren 39. edizioan

BOST EGUN ▶ Bihar hasi eta asteazkena bitarte luzatuko da, Landako erakustazokan ▶ 2-3



Udalaren jarreraz kexu dira herriko hamabi talde

IBARRA ▶ Herriko hamabi taldek azken urte eta erdian Udalak beraiekiko duen harremana publikoki salatu zuten herenegun Kultur Etxean emandako prentsaurrekoan. Egoera honetan jarraitzeko ez daudela prest adierazi zuten talde horien ordezkariak. Udalarekiko harremanak nola txartu diren adierazteko adibide

batzuk aipatu zituzten: talde batzuei «egindako fiskalizazioa», «harreman bihurriak», «aintzat ez hartzea lana», «Udalak —edo Udaleko batzuk— herrian gauzak antolatzeari beldurra», «susoan jartzea mugitzen den guztia»... Urtetako lana «aintzat hartzea» eskatu zuten hamabi taldeek. MADDI SOROA ▶ 6

ALTZO ▶

Marian Galarragak Abbadia saria jaso du

Herenegun eman zion Diputazioak Tinko elkarteari ▶ 5

TOLOSALDEA ▶



ALVARO GRACIA

‘Egunkaria’-ko auzipetuak, Kongresuko diputatuekin

Gaur jasoko dute auzipetze autoa ▶ 4

TOLOSALDEA ▶

Euskararen Eguna dela eta, ekitaldi ugari ▶ 5

TOLOSA ▶

Aldaketak izango dira Inauterietako karroza eta konpartsa lehiaketan ▶ 5

ELOLA
bede ALTZARIAK

- Etxeko altzariak.
- Ordenagailuz egindako proiektuak.
- Armairu enpotratuak neurria.

Tel.: 943 65 29 01
Lizardi poeta, 2
lo egiteko eta atsedean hartzeko onena

TOLOSA

DURANGOKO AZOKA ▶

Euskalgintzaren lekuko

Bihar zabalduko ditu atek Durangoko 39. Euskal Liburu eta Disko Azokak; urtero legez, Tolosaldeko eta Leitzaldeko produktu asko izango dira bertan; berrikuntzaz eta ekitaldiz beterik dator aurtengoa

O. ESKITXABEL / L. MONTES

Bihar zabalduko ditu atek Durangoko 39. Euskal Liburu eta Disko Azokak. Iaz Landako erakustazoka inauguratu zuen Gerediaga elkarteak; eta eraikin hori izango da, bigarrenaz, euskal kulturaren topalekua. Berrikuntzaz beterik eta inoiz baino erakusmahai gehiagorekin dator aurtengo edizioa. Produktu horien guztien artean izango dira, beste behin, Tolosaldekoak eta Leitzaldekoak.

Bi eskualdeetako hamabost produktu baino gehiago aurkituko ditu bisitariak Durangon. Liburuak dira nagusi, baina diskoak eta mahai jolas bat ere izango dira. Besteak beste, Juan Kruz Igerabide idazle adunarrak haurrentzako hainbat liburu eramango ditu; prosa eta olerkiak landu ditu horietan: *Txan magoa* *Zirkus-Zirkus*—Txan magoa protagonis-



Atxagaren *Soinujolearen semea*-k arrakasta handia izan zuen iaz. J.S.

ta duen saileko hirugarren liburua—, *Munduko ibaien poemak*, *Jonasek arazo potolo bat du* eta *Txirrina*.

Helduen literaturan, Karlos Linazasoro tolosarrak dekalogo izango denaren bosgarren liburua aurkeztuko du Durangon: *Glosolaliak eta beste*. Haren esanetan, «umore asko» du lanak. Umorea ere soberan du Kike Amonarriz umorista tolosarraren *888 txiste*. Aurreko liburuetan jaso gabeko txisteak, pasadizoak eta jolasak biltzen ditu liburua. Denetarik txisteak dira: «Gertatuak eta asma-tuak, bizituak eta bilduak, bertokoak eta gurera ekarriak, kanpokoak gure begiz kontatzen dutenak eta kanpokoak begiz azaltzen dutenak».

Bernardo Atxaga asteasuarren, Joxemari Iturralde tolosarraren eta Ruper Ordorika musikari ofatiarraren *Henry Bengoa inventarium* liburua

eta diskoa ere izango da azokan. Tolosaldeko historiari ere izango du lekurik bertan: Tolosan bizi den Koro Murok eginko *Tolosaldea bere testamentuetan (1760-1860)* eskainiko du Aranzadi zientzia elkarteak.

Euskarari buruzko lanak ere, nola ez, hartuko ditu Durangok. Bertan aurkituko ditu bisitariak Leitzako IKA-ren *Euskararen araugintza: arauak eta hiztegi batua*, eta Joxe Manuel Odriozola altzotarraren *Euskalgintzaren lekukoak* liburua.

Nairobotarra autobus famatu aitzakitzat hartuta, *Munduko ipuinak* eramango ditu Josu Iztuetak Durangora. Gai berari lotuta, *Nairobotarra mundua ezagutzeko* mahai jolasa ere jarriko du erakusgai abenturazale tolosarrak.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko diskorik ere ez da faltako erakusmahaietan: Bide Ertzeantolosalarren *Esan bare*, Txema

ESKUALDEKO PRODUKTUAN AZOKAN ▶ LIBURUAK, MAHAI JOLASA, DISKOAK...

Aurten ere, Tolosaldeko eta Leitzaldeko uzta oparora erakusgai eta salgai izango da Durangoko Azokan. Liburuak dira nagusi, eta era guztietakoak: haur literatura, helduena, euskara bera gaitzat duena... Baina diskorik ere ez da faltako; arlo horretan ere estilo ugari izango dira aukeran. Honetaz guztiaz gain, Nairobotarra autobus famatuaren eta munduko txokoen inguruko mahai jolasa ere izango da salgai Durangon. Hona hemen gure eskualdeetako produktuak azokan errazago aurkitzeko zenbait datu:



Egilea. Juan Kruz Igerabide.
Izenburua. *Txan magoa*
Zirkus-Zirkus.
Argitaletxea. Elkar.
Mahaia. Goienkalea, 72-86.
Salneurria. 6,45 euro.



Egilea. Juan Kruz Igerabide.
Izenburua. *Jonasek arazo potolo bat du*.
Argitaletxea. Aizkorri.
Mahaia. Goienkalea, 115-116.
Salneurria. 5,25 euro.



Egilea. Juan Kruz Igerabide
Izenburua. *Munduko ibaien poemak*.
Argitaletxea. Elkar.
Mahaia. Goienkalea, 72-86.
Salneurria. 7,50 euro.



Egilea. Juan Kruz Igerabide.
Izenburua. *Txirrina*.
Argitaletxea. Zubia.
Mahaia. Goienkalea, 21-22
Salneurria. 6,45 euro.



Egilea. Kike Amonarriz Gorria.
Izenburua. *888 txiste*.
Argitaletxea. Argia-Luma.
Mahaia. Barrenkalea, 3.
Salneurria. 12 euro.



Egilea. Leitzako IKA.
Izenburua. *Euskararen araugintza: arauak eta hiztegi batua*.
Argitaletxea. IKA.
Mahaia. Barrenkalea, 70.
Salneurria. 20 euro.



Egilea. Josu Iztueta.
Izenburua. *Munduko ipuinak*.
Argitaletxea. Argia-Luma.
Mahaia. Barrenkalea, 3.
Salneurria. 20 euro.



Egilea. Josu Izueta.
Izenburua. *Nairobotarra mundua ezagutzeko* mahai jolasa.
Argitaletxea. Argia-Luma.
Mahaia. Barrenkalea, 3.
Salneurria. 38 euro.



Koordinatzailea. Txema Garces.
Izenburua. *Bolona-molona. Imanol in memoriam*.
Diskoetxea. Elkar diskak.
Mahaia. Barrenkalea, 29-38.
Salneurria. 18,20 euro.

ORDUTEGIA ETA EGITARUA ▶

ORDUTEGIA

Asteazkena arte. Egutero, 10:30etik 20:00etara zabalik.

BIHAR, LARUNBATA

11:30. *Ilargiaren sekretua* filma, San Agustin Kultur Gunean.

12:30. Sarrera hitzaldia.

18:00. *Euskal Pen Klub*-aren aurkezpena.

19:00. *Supertramps* filma.

20:30. *Gauean argi* IV. edizioa San Agustin Kultur Gunean.

ETZI, IGANDEA

11:30. *Ilargiaren sekretua*

filma, San Agustin Kultur Gunean.

12:30. Jose Luis Alvarez Enparantza, *Txillardegir: Huntaz eta hartaz: Errealitatearen eta ametsen geografia* hitzaldia.

12:30. Kiko, koko eta Moko pailazoak, Kafe Antzokian.

18:00. Bernardo Atxaga: *Lekuak Literaturan* hitzaldia.

19:00. Bilgune Feminista: *Emakumea eta literatura aztergai* hitzaldia.

HILAREN 6A, ASTELEHENA

11:30. *Ilargiaren sekretua*, San Agustin Kultur Gunean.

11:30. EHE-k bere 25. urteurrena aurkeztuko du.

12:30. Jesus Mari Olaizola, *Txiliku: Irudimenaren gerezpean* hitzaldia.

18:00. Unai Elorriaga: *Tranbiaren lehioetik begirada bat* hitzaldia.

19:30. *Txistua XXI. mendean*, txistu kontzertua, Andra Mari Basilikan.

20:00. Kantaldia San Agustin aretoan: Joserra Senperena, Jose Inazio Ansorena, Andoni Egaña...

HILAREN 7A, ASTEARTEA

11:30. *Ilargiaren sekretua*, San Agustin Kultur Gunean.

12:00. *Joku hezitzaileak* bideojolasean aurkezpena.

12:30. Mikel Markez: *Pentagramaren geografia*.

17:30. *Euskal zinemaren egoera* mahaingurua.

18:30. *OAI: estandar ireki bat, Interneten liburuaren datuak libreki trukatzeko proiektuaren aurkezpena.*

HILAREN 8A, ASTEAZKENA

11:30. *Ilargiaren sekretua*, San Agustin Kultur Gunean.

13:00. *Harrizko herriko oroi harri biziak* ekitaldia.

17:30. *25 urte gero...*

euskararen normalizaziorako erronkak: Gabi Basañez (EHE), Merve Mujika (AEK) eta Joan Mari Larrarte (EKT).

Garces baxujole tolosarrak koordinatutako *Bolona-molona. Imanol in memoriam* lana... Bonberenea Ekintzak ekoizte-txearen azken lanak ere aurkituko dituzte bertaraten direnek, Entzun aldizkariaren mahian: Lobo electrico Tolosako taldearen *¿Has visto al lobo electrico?*, *Martxaundi IV*, Tolosaldeko zenbait talde eta bakarlarien doinuaren bilduma,

eta Izaeraren *10 programa gaiztokian* diskoa.

Azokako ekitaldietan ere Tolosaldeko lagunik badago: hitzaldia eskainiko du Atxagak, eta *Ilargiaren sekretua* filma izango da ikusgai; bertan hartu dute parte Tolosan bizi den Aiora Zulaikak (Pirritx), Gari Arantzabal teknikari tolosarrak eta Ibarra bizi diren Abartzih eta Tider Salemek.

295 mahai, hamaika berri

Lehen aipatu bezala, inoiz baino erakusmahai gehiago hartuko ditu Landako eraikinak: 295, hain zuzen ere. Eta berrikuntzak ere ugariak dira. Besteak beste, haur eta gazte literatura txokoa berreskuratuko dute. Gainera, profesionalek eta ikasleek ez dute egun berezirik izango aurten. Azokaguan

nean bertan inauguratutako Plateruena Kafe Antzokian ekitaldiak eta estreinaldiak egin-gin dituzte.

Hiru gai izango ditu oinarri Durangoko 39. edizioak: Jose Antonio Agirre eta Telesforo Monzon, euskal idazleen mundua, eta euskara eta teknologia berriak. Argizaiola saria Jose Luis Alvarez Enparantza *Txi-lardegi*-k jasoko du.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23

Berastegi-Elduain. Medikua: 68 33 61

Bidegoian. Medikua: 68 11 34

Ibarraldea. Osasun etx: 672411

Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29

Irura. Osasun zentroa: 69 07 20

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Lizartza. Medikua: 68 20 77

Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larriald: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroako dispen.: 67 26 37

▶ Asunzion klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

Villabona-Aiztondo.

Anbulatorioa: 00 69 70

Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Taxi: 67 04 20

▶ Taxi (Leitza): 608 873016

KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04

▶ Aiuiri aldizkaria: 30 07 32

▶ Tipi ttapa ald.: 948 631888

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

▶ Arramele-AEK: 67 12 14

▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Etxebeste. Gernikako arbola 3 (Tolosa). 943 65 10 40
Erbiti. Lizarraga, 7 (Leitza). 112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.

tolosaldean_publici@tolosaldeko

hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aizt. 687 41 00 22.

villabona-aiztondo@tolosaldeko

hitza.info

Anoetaldea. 687 41 00 22

anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info

Ibarraldea. 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

Leitza. 687 41 01 18.

leitza@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

LANA

Sukaldaria. Tabernarako sukaldaria behar da asteburuetan lan egiteko. 943 69 19 33.



Egilea. Karlos Linazasoro.
Izenburua. *Glosolaliak eta beste.*
Argitaletxea. Alberdania.
Mahaia. Goienkalea, 46-50.
Salneurria. 13 euro.



Egileak. Bernardo Atxaga, Joxemari Iturralde, R. Ordorika.
Izenburua. *Henry Bengoa inventarium* liburua eta diskoa.
Argitaletxea. Pamiela.
Mahaia. Goienkalea, 55-59.
Salneurria. 19 euro.



Egilea. Joxe Manuel Odriozola.
Izenburua. *Euskalgintzaren lekukoak.*
Argitaletxea. Elkar.
Mahaia. Goienkalea, 72-86.
Salneurria. 24 euro.



Egilea. Koro Muro.
Izenburua. *Tolosaldea bere testamentuetan (1760-1860).*
Argitaletxea. Aranzadi zientzia elkarte.
Mahaia. Artekalea, 9.
Salneurria. 20 euro.



Taldea. Bide Ertzean.
Izenburua. *Esan bare.*
Diskoetxea. Gaztelupeko Hotsak.
Mahaia. Barrenkalea, 57-60.
Salneurria. 12 euro.



Taldea. Lobo electrico.
Izenburua. *¿Has visto al lobo electrico?*
Ekoizt. Bonberenea Ekintzak.
Mahaia. Entzun. Barrenkalea, 51.
Salneurria. 10 euro.



Taldea. Tolosaldeko hainbat bakarlari eta talde.
Izenburua. *Marxaundi IV.*
Ekoizt. Bonberenea Ekintzak.
Mahaia. Entzun. Barrenkalea, 51.
Salneurria. 10 euro.



Taldea. Izaera.
Izenburua. *10 programa gaiztokian.*
Ekoizt. Bonberenea Ekintzak.
Mahaia. Entzun. Barrenkalea, 51.
Salneurria. 10 euro.

HEDABIDEAK ▶

Auziak oinarri juridikorik ez duela salatu dute Madrilen 'Egunkaria'-ko auzipetuek

Espainiako Kongresuko diputatuekin bildu ziren atzo, eta «eskubide murrizketen aurka» neurriak hartzeko eskatu zieten; gaur auzipetze autoa jasoko dute

JOXEMI SAIZAR

Espainiako Kongresuko hainbat talde parlamentariotako ordezkariekin bilera egin zuten atzo *Egunkaria* auziko auzipetuek eta haien abokatuak, Madrilen, Kongresuan —Marxelo Otamendi, Txema Auzmendi, Joan Mari Torrealdai, Iñaki Uribe, Xabier Oleaga eta Pello Zubiria auzipetuek eta Iñigo Iruin, Carmen Lamarka eta Jose Maria Elosua abokatuak izan ziren; Xabier Alegria auzipetua preso dago, beste auzi bategatik—. *Egunkaria*-ren kontrako operazioari zein auzibideari buruzko xehetasunak eman zizkieten, eta batere oinarri juridikorik gabeko auzia dela agertu zieten. EAJko Margarita Uribe, Aitor Esteban eta Iñaki Txueka, EAKo Begoña Lasagabaster, Nafarroa Bai-ko Uxue Barkos, CIUko Josep Maria Guinart eta Carles Campu-



Marxelo Otamendi ERCKo Joan Puigekin hizketan. ALVARO GRACIA



Oleaga, Uribe, Otamendi, Auzmendi eta Torrealdai. ALVARO GRACIA

BILKURAK ▶

Gaur. Andoainen, Martin Ugalde Kultur Parkean (*Egunkaria*-ren egoitza nagusia han dago, itxita), kontzentrazioa egingo da gaur, 11:00etan.

Astelehenean. Hilaren 6an 14 urte beteko dira *Egunkaria* sortu zenetik, eta bilkura egingo da Durangon, Azoka atarian, 12:00etan.

zako, ICVko Joan Herrera, Coalición Canariako Roman Rodríguez eta BNGko Olaya Fernandez diputatuekin bildu ziren.

Diputatuekin bilera egin ondoren, prentsurrekoak eman zuten auzipetuek eta hiru abokatuak. Agerraldi horretan azaldu zuten, *Egunkaria* auziaren zentzugabekeria eta sumarioaren oinarri juridiko falta adierazi nahi izan zieten

diputatuak. Iñigo Iruin abokatuak esan zuen susmoetan oinarrituta eraiki zuela Del Olmo epaileak auzi guztia, frogarik gabe. Bide beretik, Elosuak agerian utzi zuen ETArekin *Egunkaria*-ren artean lotura ekonomikoa zegoela baieztatuz abiatu zela auzia, eta, 70.000 folioko instrukzioa egin ondoren tesi hori frogatzen duen inolako zantzurik agertu ez denez, inputazio ideologiko-etara jo duela epaileak. Txema Auzmendi akusazioa egiteko erabiltzen den argudioa guztiz argigarria dela iritzi zion: atxilotuta zegoela, Guardia Zibila-aren galdeketa, ETari «erakunde terrorista» esan beharrean «erakunde armatua» esaten ziola arrazoitu du Del Olmok Auzmendi ETArekin hurbilekoa dela baieztatzeko.

Oleaga azaldu zuenez, diputatuak eskatu zieten «azkaldian Espainiako Estatuan izan diren eskubide murrizketen aurka» neurriak hartzeko: adierazpen askatasuna bermatzeko eta torturaren aurkako neurriak hartzeko. Atzoko bileran ez zen PPKo eta PSOEko diputaturik izan, baina talde horietako diputatu batzuekin «harreman informalak» izan dituztela. Arratsaldean atzerriko prentsarekin bildu ziren.

Gaur 10:00etan egon behar dute Auzitegi Nazionalan, auzipetze autoa jasotzeko. Euskal alderdi eta eragileen ordezkari-za batek lagunduko die.

ARGUDIOAK ▶ 'EGUNKARIA'-KO AUZIPETUEN ABOKATUEN ARRAZOI BATZUK

SORRERA ETA EZAUGARRIAK

Helburu kulturalak.

«*Egunkaria* proiektuak helburu kultural hutsa du» eta «proiektu honetan inplikatu ziren pertsonak kulturaren munduko pertsonalitateak dira».

Sorrera. ETArekin omen den lehenengo agiria idatzi zenerako, 1990eko ekainean, «*Egunkaria* proiektu bat baino gehiago zen». «Sumarioan erabiltzen diren agiritatik» ere ondorioztatzen da «proiektua ETArekin edo KASen balizko esku-hartzea baino lehenagokoa dela».

Ildo editorialak.

«Unibertsitateko adituek egindako ikerketek adierazten dute *Egunkaria*-ren ildoa orekatua zela» eta «ez zegoela inongo talde politiko edo ekonomikorekin lotzerik».

DIRU ITURRIAK

Txosten politziala. «Gaur egun, *Egunkaria* SArekin dokumentazio ekonomikoa Epaitegiaren esku

dagoenean, Instruktoarek badaki hori [Egunkaria *Udalexe Proiektua*-ren enpresa bat dela] ez dela egia».

Legezko harremanak.

«*Egunkaria*-k bere ibilbide enpresarialean izan dituen harreman guztiak erabat legezkoak izan dira», eta ez dago agiri bakar bat ere ETAK inoiz dirurik jarri zuela adierazten duenik.

AGIRIAK

Zaharkituak. Agiri hauen berri hedabideek eman zuten orain hamar urte, eztabaida publikoak eragin zituzten, kereila bat ere sartu zen EAEko Auzitegi Nagusian... baina «inork ez zuen uste izan agiriaren edukietan deliturik zegoenik». Bestela, «Auzitegi Nagusiak edo Fiskaltzak eginbideak hasi behar izango zituen».

Ondorioa. «ETAko ustezko kideei atzemandako agiriaren egileak zein diren inork ez daki. *Egunkaria* proiektua bultzatu zuten enpresen eta elkarten sorreraz geroztikakoak dira

agiri guztiak. *Egunkaria*-rekin lotura duten pertsonen ez zaie atzeman ETArekin esku-hartzea aipatzen duen batere agiritik. ETAK *Egunkaria*-ren sustatzaileei igorritako agiritik ere ez da aurkitu (...). 1993tik aurrera, ETAko edo KASEko kideei atzemandako dokumentazio ugarian *Egunkaria*-ren aipamen gabezia erabatekoa da (...).

ZUZENDARIEN IZENDAPENAK

Autonomia osoa. «Eginbideek eta, batez ere, inputatuen deklarazioek, erabat egiaztatu dute *Egunkaria*-k funtzionatzeko autonomia osoa zuela eta zuzendaritzako karguen izendapenak zegokien barne organuetan erabakitzen zirela».

Hirugarren zuzendaria.

Marxelo Otamendiren izendapena hizpide duen [KASen] agiritik edukien arabera, «Otamendiren aukera ez da ETArengandik edota KASengandik sortzen, eta

agiria idatzen duenak zalantza agertzen ditu aukera horri buruz, eta «askorik ez dutela ezagutzen» aitortzen du. «Agiriak hitzez hitz hartuz gero, Otamendi zuzendari izendatzeko proposamena ETArekin ez zela ondorioztatzen da, gainera ez zela ETArekin gustukoa, eta izendapenaren gestioak eta erabakia *Egunkaria* SAKo Administrazio Kontseiluko kideek egin eta hartu zituztela, modu autonomo eta erabat subiranoan».

ONDORIOAK

Susmoak. «Guardia Zibila-aren Informazio Zerbitzuaren Buruzagitzaren txostenak irakurriz gero zeinak instruktoarek erabat bere egin dituen, benetako zantzurik ez dagoela ondorioztatzen da, susmo, errezero eta uste hutsak baino ez daudela, eta errakuntzarako nahiz asmaziorako tartea uzten dutela, ematen diren datuek ez baitute beharrezkoa den indar

eta potentzialitate esanguratsurik eta, gainera, datuon balorazio arrazional eta orekatua ez baita egiten».

Ikerketa. «Ikerketa horren zabalda izan arren, auzipetzea justifikatzen duen zantzurik ez dago. Polizi txostenek eta autoak susmoak baino ez dituzte eskaintzen, logika zuzena jarraitzen ez duten dedukzioak, ikerketaren aurretik hartutako ondorioak... Hori guztia, agiri zaharkituetan oinarrituta, zeinak ez dute frogatzen, ezta zantzu gisa ere, *Egunkaria*-k eta proiektuaren arduradunek ETArekin inolako harremanik izan dutenik».

Arduradunak. «Elkarte hauen [Egunkaria taldekoak] osatzen dituzten pertsonen (...), ez dute inoiz ETArekin edo bere helburuen mesederako jarduerarik egin, eta ez dute harremanik edo elkarrizketarik izan erakunde horrekin, ez ahoz ez idatziz; izan ere, ez dago agiritik ez beste euzkarririk baieztapen hori gezurtatzen duenik, eta kausa honetako entzuketara telefonikoetatik ere ezin izan da halakorik ondorioztatzea».

GUTUN@K 

Euskara 365 egun... urtero

Abenduak 3an Euskararen Eguna, «izen propioa» duten egun guztien moduan, kontzientziatorako aitzakia gisa ere erabiltzen da.

Azken aste honetan izan ditugu hizpide beste hainbat kontu, «beren» eguna zelako, eta estadistikaz, zenbakiz, portzentaiaz etab. gure jakinduria zabaltzen dugu.

Guztia da interesgarri. Askotan, ezagunak diren go-goetak errepikatzen badira ere, fenomeno, arazo edo dena delakoaren inguruan, sentsibilizazio apur bat gehiago izan dezakegu eta.

Euskararen inguruan ere hamaika datu badago: munduko 6.000 hizkuntzen erdia desagertzeko arriskuan dagoela, bi astetik behin, batzbeste munduan hizkuntza bat galtzen dela, euskara arriskuan dauden hizkuntzetako bat dela, etab. etab.

Asaldatzen duten datuak dira nola nahi ere, gizon-emakume guztien ondarearen oinarritzko zati den hizkuntza bat galtzea, beti baita datu ezkorra, hizkuntza, komunikazio tresna bat baino gehiago ere bai baita: munduaren ikuspegi zehatz bat islatzen du, balio eta kultur adierazpenen garraiatzaile bat.

Egun batez, 24 orduz euskararen balioaz ohartzeta bada zerbaite, bainan gakoak, urteak dituen 365 egunetan euskara eguneroko hizkuntza bihurtzean datza. Ezagutzatik erabilerarako urratsa ematean datza.

Euskal Herriko txoko guztietan ez dago ahalmen berdinek, egoera soziolinguistikoa dela medio, legedia tarte, etab. Baina, datu objektiboa da legez babestua dagoen guneeetan, azken urteetan euskarak aurrerapausoak eman dituela; apalak badira ere, aurrerapausoak. Hala ere, alperrik da legedi aurreratuena hiztunik ez badago, eta hori euskaradun guztion ardura da.

Tolosari dagokionean, irudiz, bada erabileran goranzko joera bat. Honex poz zuhur bat sortarazten du, sortarazi beharko luke euskal hiztun bakoitzarengan. Zuhurra, joerak eguneroko inplikazioa eskatzen duela, hau da, euskara urteak dituen 365 egunetan erabiltzea.

ONINTZA LASA
(EA-KO ZINEGOTZIA) ▶ TOLOSA



Tinkok Anton Abbadia saria jaso du

ALTZO ▶ Anton Abbadia saria eman zioten herenegun Tinko Euskara Elkarteari Gipuzkoako Foru Aldundiaren jauregian. Marian Galarragak altzotarrak, elkarteko lehendakariak, jaso zuen saria. Argazkian lore

sortarekin agertzen da, ondoan Fernando Tapia Gizarte eta Harremanetarako Foru diputatua, Arantxa Iztueta epaimahaikide tolosarra eta Inaxio Oliveri Mondragon Unibertsitateko errektorea dituela. JOAN URBE/ARGAZKI PRESS

TOLOSA ▶ INAUTERIAK

Aldaketak karroza eta konpartsa lehiaketan

Parte-hartzaile guztei diru kopuru jakin bat emango zaie eta irabazleek txapela edo oroigarria jasoko dute

IMANOL GARCIA

Datorren urteko Inauteriak berrikuntzekin datoz. Festa Batzordeak eta karroza, plataforma eta konpartsetako ordezkariak orain arte egindako lehiaketaren egitura aldatzea erabaki dute. Berrikuntza nabarmenena sarian datza: ez da orain arte bezala dirutan emango, baizik maila bakoitzean sari bakarra izango da, hau da, oroigarria edo txapela. Honekin batera, Inauterietan parte hartzen duten —eta horretarako, noski, izena eman beharko dute— karroza, plataforma eta konpartsek diru kopuru jakin bat jasoko dute beraien gastuetarako.

Epaimahaiaren osaketari dagokionez ere, berritasunak izango dira. Aurtengo Inauteriak arte osatutako epaimahaiaren ordezkari banak eta Udaleko ordezkari batek osatuko lukete.

Egun dagoen arautegian ere aldaketa batzuk egingo dira. Horrela, publizitateari dagokionez, galerazita dago karroza eta konpartsen ibilbideko publizitate estatikoa izan ezik. Bestalde, izena eman ez duten karrozak eta konpartsak ezin dira saritu. Azkenengo aldaketa, arautegia ez betetzeak

ekartzen dituen zigorrak erabakiko dituenari dagokio. Orain arte Festa Batzordeak zuten eginkizun hori eta hemendik aurrera epaimahaiaren esku izango da.

Aurrekontuaren arabera

Lehiaketaren egitura berriak baditu bere eragozpenak ere. Parte-hartzaile guzteei diru kopuru jakin bat emango zaieenez, arazoak egon daitezke talde askok izena ematen badute. 2004ko aurrekontua 36.000 euro ingurukoa izan zen eta orain 16.500 gehitu nahi dira, baina udal ordezkariak ez dute igotzea guztia ziurtatu.

Karrozak eta plataformak identifikatzerako uanean, ez da arazorik ikusten, bakoitza maila bat delako eta erraz atzematen delako zeintzuk diren. Kezka konpartsetan azaltzen dira. Egun dagoen arautegian arabera lau maila ezberdin daude: A taldea, 25 partaide baino gehiago; B taldea, 12 partaide baino gehiago; C taldea, 6 partaide baino gehiago, eta D taldea, partaide bat baino gehiago direnean. Herenegun egin zen bileran, ez zen erabaki zehazki zein irizpide erabiliko den mailak zehaztu eta diru kopurua banatzeko. Alde batetik konpartsakide kopurua eta

bestetik kreatibitatea kontuan hartzea eskatu zen, baina azkenean hurrengo bilerarako utzi zen erabakia. Honen inguruan, konpartsetako kide batzuk bileran kezka azaldu zuten, «izena ematen duten guzteei dirua ematen bazaie, mozorrotzen den guztiak izena emango duelako».

Karrozak oiletgirira

Aspaldiko eskakizun bati erantzuna eman dio Udalak. Inauterien ondoren karrozak gordetzeko lekua eskatzen zen. Olarra in auzoan Ezeizabarrena oiletgeria zegoen pabiloia erabiliko da beraz datozen Inauterien ondoren plataformak guztiak gordetzeko.

EUSKARA ▶

Ekitaldi ugari Euskararen Eguna dela-eta

Ikastetxeetan hainbat ekitaldi antolatuta dira gaur Euskararen Eguna dela eta. Laskorain Ikastolan, besteak beste, irratsaioa berezia egingo dute LH 4, 5 eta 6 eta Batxilergoko ikasleen eskutik. Ondoren euskararen aldeko konpromisoa sinatuko da, Kontseiluarekin antolatuta den egitasmoaren baitan. Txistor jatea, ipuin kontaketa eta jolasak ere izango dira egunean zehar. Hirukiden ziklo ezberdinek ikasgeletan bereziki landuko dute euskara. Euskararen Ikasle Batzordeak prestatuta Goiko Irratian zuzeneko saioak egingo dira, 9:20ean eta 11:30ean. Inmakulada Ikastetxean ere euskararen inguruko hainbat ekitaldi burutuko dituzte goizeko 10etatik aurrera. Aitzol Udal Euskaltegiak, bere aldetik ipuin kontaketa antolatu du. Joxe Mari Karrere arituko da, 09:30tik aurrera, *Kondoi bakoitzak bere istorioa dauka* kontatuz. Ibarako Uzturpe ikastolan goizean jokoak eta 15:00etan solasaldia izango da Gari Uranga Realeko futbolariarekin.

TOLOSA ▶

Santa Mariako kaperaren entsegu gaur

Gaur, 20:00etan, Santa Mariako kaperako abeslari eta ordezkariak Maria Sortzez Garbiaren eguna prestatzeko entsegu izango dute. Hilaren 8an 11:00etako mezan, besteak beste, Mokoroaren *In honorem S. Juannis Baptistae* abestuko dute. Bestalde aipatzekoa da gaur bertan, ETBko lehenengo katean Santa Mariako kaperari egindako erreportaia erakutsiko dela. Bi aldiz emango dute: 14:40ean eta gaueko bi pilota partiden artean.

Errementari kalea z/g
TOLOSA
Tel.: 943 67 16 30
LENTZERIA

LENTZERIA
'Pijamak, kamisoiak, bodiak, tangak...'

IBARRA ▶ GIZARTEA

Bizi duten egoera publikoki salatuta dute herriko hamabi taldek

Udalarekin dituzten harremanek ez dutela horrela jarraituko adierazi dute idazki baten bidez prentsurrekoan



Salaketa publikora atxikituriko taldeetako ordezkariak asteazkeneko prentsurrekoan. MADDI SOROA

MADDI SOROA

Herrian bizi duten egoera publikoki salatuz, asteazkeneko prentsurrekoan eskaini zuten prentsurrekoan Ibarako talde ezberdinek Kultur Etxean. Helburu nagusia, herritarrek eta herriko taldeek herrian bizi duten egoera eta Udalarekin dituzten harreman publikoki salatzea izan zen. Honako hauek izan ziren salaketari atxikimendua eman zioten taldeak: Festa Batzordea, Hauspoa, Alurr dantza taldea, Gazte Asanblada, Txozna

Batzordea, Garagardo Festako Batzordea, Danborrada Batzordea, Denak Taberna areto futbol taldea, Hitzetan Raju, Langostino moto festa, Eneko Aritzaren lagunak, eta Subegi.

Pello Dorronsoro, Hauspoako lehendakaria izan zen prentsurrekoari hasiera eman ziona, eta zera adierazi zuen «salaketa publiko hau egin nahi dugu duela urte eta erdiko epea behingoz bete dugula esateko», izan ere, «ez gaude prest egoera honetan jarraitzeko» azaldu baitzuen. Bestalde,

«salaketa honek giro txarra sortuko du akaso, ez dakigu nola amaituko den hau, ez eta zein ondorio izango dituen», esan zuen Dorronsorok.

Dorronsororen hitzek, Carlos Mendibil Langostino Moto Festako ordezkariaren hitzei eman zien pasu, berak irakurri baitzuen Ibarako taldeen salaketa publikoa biltzen zuten idazkia. «Eta Ibarako herriak hau merezi al du?» esanaz hasi zuen irakurketa, eta «kontua da Udalarekin zela antzean genituen harremanak

aldapa bihurtzen hasi zirela udal korporazio berriarekin» azalduz jarraitu zuen. Esandakoa isladatzeko, hainbat adibide aipatu zituen jarraian Mendibil idatziaren bitartez.

Hasteko, Hauspoa eta Alurr taldeari «egindako fiskalizazioak» izendatu zituen, hizketan egitea «egokiagoa» ez al zen argudiatuz. Garagardo Festaren harira, berriz, udalarekin izandako «harreman bihurriak» gogoratzen zituen ondoren izkribuak. Baita Gazte Asanbladaren lana —Kultur Astea, zine-kluba...— «aintzat hartzen ez dela» ere, besteak beste.

Bestalde, «zergatik dio Udalak halako beldurra edo herrian gauzak antolatzeari, horretarako jendea prest egonda?», «edo Udala esan beharrean Udaleko batzuk esan behar al da?», eta «zergatik jartzen da susmopean mugitzen den guztia?» galderak planteatzen zituzten herritarrek idatzian zehar. Amaitzeko, «gu behintzat hitz egiteko prest gaude» esan zuen Mendibilek eta «urtetako lana aintzat hartzea ez da gehiegi eskatzea eta aurrerantzean ere lanean jarraitzeko asmotan gaudenez, uste dugu zer esana badugula eta gure iritzia kontuan izan beharrekoa dela», gaineratu zuten.

Idazkia irakurtzearekin bat, zera adierazi zuen Dorronsorok «salaketa publiko honekin prozesu berri bat zabaldu dugu, ez dakigu Udalak zein jarrera hartuko duen hemendik aurrera». Era berean, «hemendik aurrera ez dugu onartuko orain arte bizitako harreman desgastea, batzorde horrek gure ordezkariak gabe ez baitu zentzurik» baieztatu zuen Dorronsorok.

Ondoren, aretoan bildu ziren lagunak iritzia eman eta gaiak eztabaidatzeko aukera izan zuten. Alurreko lehendakaria den Eli Nosellasek esaterako, zera adierazi zuen: «Lanean jarraituko dugu, baina, ezin dugu egiten dugun guztia justifikatzen ibili».

TOLOSA ▶

Renferen greba izango da gaur eta ostegunean

UGT eta CCOOren proposamenaren bitartez, Renfeko Enpresa Batzorde Orokorrak lanaren geldialdia deitu du abenduaren 3 eta 9rako. Aldirikoegi dagokionez, zerbitzu minimoak eskainiko dira jende gehien ibiltzen den orduetan, hala nola, 6:00etatik 9:00etara, 14:00etatik 16:00etara eta 18:30etatik 20:30era. Lurraldeko trenen kasuan, berriz, %65eko zerbitzua mantenduko da eta ibilbide luzeetako trenen kasuan ohiko trenen %66,8 a egongo da martxan.

TOLOSA ▶

«Sinbologia frankistak» kentzeko deia

Tolosako Segi Gazte Erakundeak hiru aste daramatza intsumisio kanpainarekin. Orain, ekimen berri baterako deia egin du. Segik azaldutakoaren arabera «espainiar sinbologia inposatua ziren frankismo garaiko plaken gainean ohar txo batzuk itsastea» da asmo nagusia. Gauzak horrela, aipaturiko sinbologiak kentzeko deialdi publikoa egin du Segi gazte erakundeak.

TOLOSA ▶

Haur Danborradarako kantinei abisua

Aiz Orratz-Veleta elkarteak, datozen Inauterietako Haur Danborradan kantinerak aurkeztu nahi duten elkartei honako abisua helarazi nahi die: argazkia elkartera lehenbailehen eraman dezatela, izan ere, horrela egingo ez balitz, ezingo lukete sartu danborradaren egitarauan.

hitza

txokoa^{lagunen}

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

▶ Astebukaera honetan **Leidorren** emango den 'ALIEN vs. PREDATOR' filmarako 2 sarreren irabazlea:

IOKIN TOLOSA AGIRREZABALA
HITZAren harpidedun laguntzaile amezketarra.

▶ **MAHALA**ren esneki eta txerriekin irabazle den harpidedun laguntzailea:

LURDES IZAGIRRE IZTUETA (ALEGIA)



Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

ARESO ▶ EUSKARA

Neguko festa aitzaki hartuta, Euskararen Eguna burutuko dute igandean bete-bete

Herriko kirolariak eta dantzariak ez ezik, trikitia ere protagonista izanen da eta, XI. Trikitixa Txapelketa egingen dute; herri bazkaria Pake Toki elkartean dute

JAIONE ASTIBIA

Areson, Neguko Festa egiteko aitzakian, Euskararen Eguna antolatu dute abenduaren 5a, iganderako. Egun osorako egitarau bete-betea prestatu du, bertako eskolako Guraso Elkarteak, urtero egin ohi duen moduan.

Eguneko ekitaldie eguerdian emanen diete hasiera, herrian barrera egingen duten kalejirarekin eta egun guztian zehar, herrikoak diren trikitilari eta panderojoleekin, dantzariarekin, talogileekin, kirolariek, sukaldariek... osatuko dute festa, gainerakoen mesedetan. Herrian ekoizten dena erakusteko bidea da.

Horrela, herri kirol saioan, gaztetxoak betiko jostaketetan ibiliko dira eta ondoren, bi pilota partidu jokatu dituzte, bi bitara, herriko pilotariak. Goizeko festa bukatzeko, dantzari saioa izanen da ikusgai, plazan bertan. Saioa puntu-puntu egiteko, azken ukituak errepasatzen aritu omen ziren



Herrian egingen den lana erakusteko baliatuko dute igandekoa. J.A.

atzo iluntzean ere, Hirzak jakin izan duenez. Goizean, hainbeste kirol eta ekintza ikusi hutsarekin ere, gutxi-asko, gosea ere egingen dela eta, taloak ere izanen omen dira salgai, hainbat gurasoren eskutik.

Ekitaldi hauek guztiak, plazan dira egitekoak, eguraldia lagun. Bestela, eskolako trinkean egingen direla eman dute jakitera.

Eta handik bertan, Pake Toki elkartean, izanen dute herri

bazkaria ere. Urtero jaki desberdinarekin lehiaketa egingen omen dute egun horrekin, esan dutenez. Aurten, erredondo saltsan omen dute prestatu beharra: «prestatzeko behar diren osagai guztiak, haragia bera, berdurak, olio, katza... denak elkarteak ematen dizkie parte-hartzaileei, eta gero bakoitzak bere etxean prestatu», argitu zuten antolatzaileek. Gero, epaimahaiari aurkeztu eta sariketa egingen omen dute,

hoberenak «txapela, ardoa eta kofia jasoz», alegia, sukaldari-zapela eta herrian bertako lagun batek eskuz margotutako mantalurrekoa. Edozein moduz, prestatutako lapikokada guztiak bazkarirako izanik, 100 bat lagun biltzeko moduan izanen omen dira. «Nahi duen guztia etor daiteke bazkaltera», egin zuten gonbidapena. Bazkalondoan bertsolariak izanen omen dira besteak beste, eta Euskara Zerbitzuaren eskutik, zehaztu nahi izan zuten.

Baina egun osoan protagonista izatekotan, trikitia izanen da hori. Hasieratik bukaerara, herriko trikitilari eta panderojoleak soinu tikiari eta eskuei eraginez ariko baitira. Ildo horretan, XI. Trikitixa Txapelketa ere ospatuko dute. 12 urtez behokoentzat izanik, aurten ez omen da herriko suertatu, baina lau bikotek parte hartuko dutela eman zuten jakitera. Ondoren, herrikoek, oraingoan trikiti-eskolan ikasitako doinu eta bertsoekin, erakustaldia

EUSKARAREN EGUNA ▶

ETZI, IGANDEA

12:15. Kalejira.

12:30. Herri kirolak gaztetxoekin, plazan.

13:00. Pilota partiduak, herriko gazteekin, plazan: Jokin Barandain-Mikel Olazabal/Unai Onsalo-Mikel Iriarte; Garikoitz Nieto-Xabi Alustiza/Andoni Galarraga-Kebin Vera.

14:00. Herriko dantzariak, plazan.

Taloak. Goiz guztian zehar salgai.

14:30. Herri bazkaria, Pake Toki.

Ondoren. Aresoko trikitilariak eta Jesus Mari Irazu eta Aitor Mendiluze bertsolariak.

17:30. XI. Trikitixa Txapelketa, eskolako trinketean.

Ondoren. Herriko trikitilari eta panderojoleen erakustaldia.

19:00. Txokolate beroa, han bertan.

eskaniko dute. Eskolako ume-ek egindako karteletan iragarritako festa-eguna bukatzeko, txokolate beroa banatuko dute barrenak berotzeko, «ordurako freskura ere nabarituko da eta», zioten.

Asteburu luzean murgilduta, han eta hemen zer ikusia izanen da, Aresoko hau adibide. Kasu horretan, festa egiteaz batera, gure hizkuntzaren aldeko apostua egitea da jarrera.

LEITZA ▶ KIROLA

San Inazio futbol taldea da etortzekoa igandean

Aurreko asteburua jai egin ondoren, Aurrerak Arkixkilen izanen du partidua 16:00etan

J. ASTIBIA

Aurreko asteburuan atseden hartu ondoren, igande honean, berriz ere, futbol zelaira aterako dira Aurrerako jokalariek eta lanari ekin.

Horrela, etxean dute partidua aste honetan: Iruñeritik etorriko den San Inazio taldearen aurka jokatu dute 16:00-etatik aurrera, Arkixkil futbol zelaietan.

Talde hau sailkapen orokorrean, ez dago oso ongi kokatua, atzetik hasi eta bosgarren lekuan baitago. Baina, hala ere,

«lanak emanen ditu eta borrokarako prest atera behar dugu zelaira, ez dugu zaintza jetsi behar, inolaz», zioen atzokoan lehendakariak. «askotan partidurik zailenak horietan suertatzen dira eta», erantsiz. «Etxean jokatu dugu eta puntuak bertan gelditzea lortu beharra daukagu», azaldu zuten, bestalde, horretarako lana serio egin behar dela gaineratuz: «Irabaztera atera behar dugu zelaira, indarrez, eta aurkariari aurre hartu».

Zaletuei taldea laguntzera joateko deia egingo diete.



Villabona - Kultura



— ANTZERKIA —
HIKA taldea
'IXA'
ANTZEZLANA

Abenduak 3 Ostirala • Gauko 22:30ean
GUREA ARETOAN



Udal Kultura Batzordea



Gipuzkoako Foru Aldundia
E.A.S. (Euskadiko Antzerki Sarea)

Harpidedunei banatua ▶ 2004ko abenduaren 3a, ostirala ▶ II. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Alaitzolaeta, Aduna, Albiztur, Aloga, Aliza, Altza, Ametzola, Ansoa, Balamán, Belduza, Berastegi, Edoñen, Hernialde, Ibarra, Iruja, Lantzi, Leizorua, Lizarra, Oñativia, Oñeta, Tolosa, Vilatorrada, Zuñadi
besteriak: Leizaldekoko Eskola Baxerriak

Gipuzkoako Foru Aldundia

Eusko Jaurjaritza Kultura Salla

Eusko Jaurjaritza Kultura Salla

Eusko Jaurjaritza Kultura Salla

GAURKO EGURALDIA

goizez

arratsaldez

beroena

11

hotzena

10

BIHARKO EGURALDIA

goizez

arratsaldez

11

10

goizez

arratsaldez

11

10

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA (zalantzak, harpide egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Irura. Zaharren Biltokiak loteria oparituko die gaur bazkide guztiei.
Leitza. Altsasuko Erkudengo Ama abesbatzaren kontzertua 12:00etan Mikel Deuna elizan.
Leitza. Neubat taldearen kontzertua. 24:00etan Torrea tabernan.
Tolosa. Hilaren 18ko Gabonetako azoka berezian parte hartu nahi duten dendari eta Zerkausiko saltzaileak gonbidatzen ditu Udalak izena emateko 943 697454 telefonoan.
Tolosa. Alkateak ofizialki piztuko ditu herri osoko Egunerrietako argiak 19:00etan Amarozen.
Tolosa. Euskadiko Kopa jokatuko denez, igerilekua itxita egongo da asteburuan.
Tolosa. Santa Mariako kaperaren entsegua 20:00etan.
Tolosa. Nerea Herrarte ipuin kontalaria 18:00etan Haur Liburutegian.
Villabona. Hika antzerki taldearen *Ixa* antzezlan 22:30ean Gurea aretoan.

ERAKUSKETAK

Hernialde. Luis Laskorain. Koadroa. Ostatuan.
Ibarra. Jaietako argazkiak Kultur Etxean.
Tolosa. Isabel Mujikaren koadroak Sorrón dendan.
Tolosa. Ana Jesus Ansorenaren zeramikak Lanbroa tabernan.
Tolosa. Anselmo Elizalderen koadroak Fronton kafetegian

TITIRIJAI

Tolosa.
▶ Kultur Etxea. 10:30, 15:00 eta 18:30. Titeres Maria Parrato (Espainia): *No te asuste mi nombre.*
▶ Beotibar. 10:30 eta 15:00. Pitara Putli (India): *Swaagat-Festa Rajasthanen.*
▶ Kasinoa. 11:00 eta 15:00. Chaya Nataka Brundam (India): *Sundara Kandam.*
▶ Leidor. 11:00, 15:00 eta 17:30. Bihar (Euskal Herria): *Ibaixu: Burdinaren lamia.*
▶ Gorosabel. 12:00 eta 15:00. Mari Teatroa (Euskal Herria): *Beldurraren apoa.*
▶ Kasinoa (helduak). 20:30 eta 22:30. Bambalina Titelles (Valentzia): *La sonrisa de Lorca.*



Ipuinetako pertsonaiak ikus daitezke erakuslehoetan. O.ESKIXABEL



Bihar txotxongilo taldearen txotxongiloak daude erakusgai. O.ESKIXABEL

Txotxongiloen aterpeak

TOLOSA ▶ Bihar txotxongilo taldearen zilarrezko ezteiak direla-eta, taldearen hamalau lanetako txotxongiloak daude ikusgai Nafarroa etorbideko dendetan



El bandido de Lanzeko txotxongiloak; 1987an estreinatu zen lan hori. O.ESKIXABEL

OLAIA ESKIXABEL

Titirijai jaialdira gonbidatu bereziak iritsi dira aurtengoan; eta Nafarroa etorbideko 28 dendetako erakuslehoetan hartu dute ostatu.

Erakusleho bakoitzean, ipuin edota kondairetako pertsonaia ezagunak ikus daitezke. Kalea, kolorez eta fantasiaz bete da. Erakuslehoak apaintzeaz gain, paseotxo bat emanaz, erakusketa luze bat ikusteko aukera izango dute kalea zeharkatzen dutenek.

Ekimena, Nafarroa etorbideko dendari gehienek eta Igarondo merkataritza elkartearen laguntzari esker burutu da. Helburua: txotxongiloak gertuagotik bizitzeko aukera izatea.

Txotxongiloak, Bihar txotxongilo taldeko produkzioetakoak dira; izan ere, taldeak bere zilarrezko ezteiak ospatzen ditu aurtun. Sestaoko taldea da, beraz, Txotxongilo kaleko protagonista.

HITZA, zorion agurren

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, **tartea** ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZaren egoitzara:
Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA
Udaletxeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!

